



Funesen lan istripu larria izan zuen langilea hil da

AGENTZIAK/LA HAINE :: 08/10/2024

2024ak dagoeneko 45 langile hilik utzi ditu lan istripuz Euskal Herrian.

Urriaren 6an, Nafarroako Funesen, 29 urteko langile batek istripu larria jasan zuen eta atzo hil zen, zauri larriei ezin eutsi. Langileari makina batek besoa harrapatu eta suhiltzaileek askatu behar izan zuten, jarraian erietxera eramateko.

2024ak dagoeneko 45 langile hilik utzi ditu lan istripuz Euskal Herri osoan, horietatik 13 Nafarroan.

<https://eh.lahaine.org/funesen-lan-istripu-larria-izan>